

**OSASUN SAILA**

Administrazio eta Finantzaketa  
Sanitarioko Sailburuordetza  
*Aseguramendu eta Kontratazio*  
*Sanitarioko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SALUD**

Viceconsejería de Administración y  
Financiación Sanitarias  
*Dirección de Aseguramiento*  
*y Contratación Sanitarias*

JARRAIBIDE OROKORRA: 1/2026

GAIA: Asistentzia sanitarioa Osasun Sailaren aldetik segurtatua daukaten pertsonen mantenu, ostatu eta garraibide ez-sanitarioen bidezko lekualdatze-gastuetarako laguntzen erregulazioa.

### SARRERA

Osasun Sailak mantenu, ostatu eta garraibide ez-sanitarioen bidezko lekualdatze-gastuetarako dietak eman izan dizkie Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden Osasun Sistema Nazionalaren zentroetan arreta sanitarioa jasotzeagatik eskatzen zituzten pertsoneri.

Laguntza horiek emateko irizpideak 4/2004 Jarraibide Orokorrean jasota zeuden, eta, irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretua (Osasun Sistema Nazionaleko ohiko zerbitzuen zorroa eta berau eguneratzeko prozedura ezartzen duena) indarrean jarri ondoren, Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendariaren 1/2007 Jarraibidean (Osasun Sailaren aldetik segurtatua daukaten pertsonen mantenu, ostatu eta garraibide ez-sanitarioen bidezko lekualdatze-gastuetarako laguntzak arautzen dituena).

Igaro den denbora eta harrezkero metatutako esperientzia kontuan hartuta, beharrezkoa da laguntzen zenbatekoak eguneratzea eta laguntzaileei laguntza horiek emateko zenbait irizpide berrikustea.

Laguntza horien zenbatekoari dagokionez, pertsonen errenta-mailen araberako progresibitate-irizpidea gehitu da. Informazio hori modu objektiboan lor daiteke Herritarren Oinarriko Aseguramenduaren Informazio Sistemari (SIABP) dagoen farmazia-adierazlearen (OTI) datua kontsultatuta.

Hori dela eta, garraibide ez-sanitarioen bidezko lekualdatzeetatik eratorritako gastuengatik emandako laguntza horiek eta mantenu eta ostaturako dietetarako laguntzak gaur egungo errealitate soziosanitariora hobeto egokitu daitezten bermatze aldera, hartu dugun esperientziak gomendatzen digu, Osasun Sailaren

egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuak emandako eskumenak betez, honako jarraibide hauek ematea:

## JARRAIBIDEAK

### **Lehenengoa.-**

Jarraibide orokor honek barne hartzen ditu Euskadiko Osasun Sistemak eman eta bermatutako osasun-txartel indibiduala duten Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiak.

### **Bigarrena.-**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren aldetik asistentzia sanitarioa bermatuta daukaten herritarrek eskatu ahal izango dituzte laguntzak, mantenu nahiz ostatu eta garraibide ez-sanitarioen bidezko lekualdatzeetatik eratorritako gastuetarako, baldin eta, Osasunaren arloko lurralde-ordezkaritzak baimendu ondoren, asistentzia hori lortzeko Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dauden zentro sanitarioen batera lekualdatu beharra badaukate.

### **Hirugarrena.-**

Asegurudunari laguntza ekonomikoa emateko mekanismoa gastuak ordaintzea izango da. Gastuak ordaintzeko espedientearen ebazpena aldekoa izan dadin, dirulaguntza eskatzen den gastu horiek justifikatzen dituen behar besteko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Honako hau da beharrezko dokumentazioa:

- 3.1. Prestazio sanitarioen eskaera.
- 3.2. Zentro sanitariora bertaratu izanari buruzko egiaztageria, edo, ospitaleratuz gero, alta-txostena.
- 3.3. Banku-kontuaren datuak, kontu horren titularra barne.
- 3.4. Ohiko garraibide publikoaren fakturak edo tiketak: autobusa edo trena.
- 3.5. Gaua igaro bada, ostatuaren faktura.
- 3.6. Mantenuaren fakturak edo tiketak.

## Laugarrena.- Pazienteen mantenu- eta ostatu-gastuetarako laguntzak.

### 4.1. Laguntza emateko baldintzak honako hauek izango dira:

4.1.1. Pazienteak behar duen asistentzia-prozedura ez da eskura edo erabilgarri egongo kasuak eskatzen duen denboran edo era egokian Euskadiko Sistema Sanitarioko asistentzia-eskaintzan.

4.1.2. Lekualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpoko asistentzia-zentro batera izan beharko da.

4.1.3. Asistentzia sanitarioa Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuko edo Osasun Sailak hitzarturiko eta dagokion lurralde-zuzendaritzak pertsonaren helbidearen arabera baimendutako zentzoren bateko fakultatiboren batek aldeztu aurretik aholkatuko du, Osasun sailburuordearen 2002ko uztailaren 16ko Ebazpenaren arabera, non zehazten baitira Euskadiko Sistema Sanitariotik kanpoko asistentzia sanitariora sarbidea edukitzeko irizpideak eta jarduketa-protokoloak gauzatzeko araubidea.

4.1.4. Ez da laguntzarik emango lekualdatze-eskaera pazienteek edo ordezkariak egiten dutenean.

### 4.2. Hona laguntzaren zenbatekoa:

Gehienezko globala eguneko 60 eurokoa izango da: gehienez 40 euro ostaturako eta gehienez 20 euro mantenturako.

Ostatua soilik ostatu-faktura aurkezten denean ordainduko da. Ostaturako alokairu-erregimenean egiten denean, ostaturako kontratuaren eta ordainagiriaren arabera ordainduko da; inola ere ez da ordainduko horretarako ezarritako gehienezko zenbatekotik goragoko kopururik.

Sarreran aipatutako progresibitate-irizpidea aplikatzeko, apartatu honetan jasota dagoen oinarritzko zenbatekoari aplikatu beharreko gehikuntza hauek ezarri dira, eta, betiere, asistentzia jasotzen duen pertsonaren farmazia-adierazlearen (OTI) arabera.

FARMAZIA-ADIERAZLEA (OTI)	OINARRIZKO ZENBATEKOAREN GAINEN KOPURURIK
OTI 001	% 30
OTI 002 01 OTI 003	% 15
OTI 002 02	% 5

OTI 004	
OTI 005	% 0
OTI 005 03	
OTI 006 (MUTUALISTAK) (*)	% 0

*(\*) Mutualisten OTIan ez dago jasota errentari buruzko informaziorik; hortaz, gehikuntzaren ehunekoa aplikatu ahal izateko, asistentzia jaso zuten ekitaldiko errentaren aitortpena aurkeztu beharko dute.*

### **Bosgarrena.- Laguntzaileen ostatu- eta mantenu-gastuetarako laguntzak.**

5.1. Laguntza emateko baldintzak honako hauek izango dira:

5.1.1. Lekualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpoko asistentzia-zentro batera izan beharko da.

5.1.2 Pazienteak honako egoera hauetakoren batean egon beharko du:

5.1.2.1. 18 urtetik beherakoa izatea.

5.1.2.2. Desgaitasuna izatea, eta laguntza-neurriak izatea bere gaitasun juridikoa egikaritzeko (notario-ahalordea, egitatezko zaintza, tutoretza, etab.).

5.1.2.3 Asistentzia jasotzean ospitaleratu eta gaua igaro behar badu helmuga-ospitalean.

5.1.2.4 Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko maila funtzionalean hirugarren pertsona baten mende dauden pertsona guztiak. Kontuan hartuko da egoera hori aldi baterakoa izan daitekeela eta berrius daitekeela.

Egoera hori zehazteko, kontuan hartuko da pazienteari egindako Barthel eskalan lortzen den puntuazioa. 0 (erabateko mendekotasuna) eta 55 (neurrizko mendekotasuna) puntu bitartean jasotzen dituzten pazienteek laguntzaileen mantenu-, ostatu- eta garraibide-gastuak ordaintzeko laguntza jasotzeko eskubidea izango dute.

5.1.3. Pazientearekin batera laguntzailea lekualdatzeko, aurretiaz baimena lortu behar da bere egoitzari dagokion Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzan.

5.2. Hona laguntzaren zenbatekoa:

5.2.1. Pazientea ospitaleratzen badute: gehienezko globala eguneko 60 euro izango da, gehienez 40 euro ostaturako eta gehienez 20 mantenurako.

5.2.2. Pazientea ospitaleratzen ez badute: gehienez eguneko 20 euro mantenurako.

Laguntzailearen mantenu- eta ostatu-gastuetarako laguntzaren zenbatekoan, pazienteari aplikatzen zaion progresibitatea aplikatuko da (4.2 apartatuan jasota dago).

**Seigarrena.- Mantenu- eta ostatu-gastuetarako laguntzen gehienezko zenbatekoa.**

Ostatu- eta mantenu-gastuetarako laguntzen gehienezko zenbatekoa, baimenaren xede den asistentzia sanitarioko prozesuari dagokionez, pazienteari eta laguntzaileari guztira dagokiena, ezingo da izan ezein kasutan 950 euro baino gehiago, etxetik kanpo gaur eman behar den hamabostaldi bakoitzeko. Kopuru horri 4.2 apartatuan jasota dagoen progresibitatea gehitu beharko zaio.

**Zazpigarrena.- Pazienteak eta, hala badagokio, bere laguntzaileak garraioetarako ez-sanitarioetan egindako lekualdatze-gastuetarako laguntzak.**

7.1. Laguntza emateko baldintzak honako hauek izango dira:

7.1.1. Lekualdatzea Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldetik kanpoko asistentzia-zentro batera izan beharko da.

7.1.2. Pazienteak 4.1 apartatuan zehazten diren baldintzak bete beharko ditu.

7.1.3. Laguntzaileak 5.1 apartatuan zehazten diren baldintzak bete beharko ditu.

7.2. Lekualdatze-laguntzen zenbatekoa:

Lekualdatzeko laguntzak pazienteak/laguntzaileak (trena edo lineako autobusa) erabili duen garraio-bide publiko arruntaren txartelaren zenbatekoaren arabera ordainduko dira. Lekualdatzea hegazkinez egin behar den aparteko kasuetan, hegaldi arrunt batean turista-klaseari dagokion tarifa ordainduko da.

Pazienteak/laguntzaileak bere ibilgailua erabiltzen badu edo garraio-txartelak aurkezten ez baditu, lineako autobuserako garraio-bide publiko arrunteko tarifaren arabera ordainduko da, tarifa eguneratuaren arabera.

Ez da laguntzarik ordainduko pazientearen etxetik trenbidearen geltokira, hiriarteko autobusera edo aireportura joateko, ezta helmugako geltokitik asistentzia jasoko duen zentrorra joateko edo alderantziz ere.

Ospitaleratuta dagoen paziente baten laguntzailearentzako lekualdatze-laguntzaren bidez, joanera eta itzulera bakarra ordainduko da ospitaleratze bakoitzeko.

**Zortzigarrena. - Denboraldi baterako Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetara joaten diren eta bitarte horretan beren behin-behineko egoitza erkidego horretako zentro sanitarioa lekualdatzeko garraio-bide ez-sanitarioa behar izaten jarraitzen dutenen kasu berezia (adib.: dialisia behar duten pazienteak).**

- 8.1. Pazientea denboraldi baterako lekualdatu den autonomia-erkidegoak hartzen du bere gain, betiere bere esparruan garraio-bide sanitarioaren erabilera baimentzeko erabiltzen dituen irizpideak ezarriz, arrazoi medikoak direla-eta tratamendu horiek behar dituzten erabiltzaileei zerbitzu hori errazteko ardura.
- 8.2. Autonomia-erkidego horretako agintari sanitarioek pazientea barne hartzen ez badute garraio-bide sanitario kolektiborako duten programan (adibidez behin-behineko egoitza hori oso urruti geratzen delako garraio-bide sanitario kolektiboak egiten duen zirkuitutik) eta, ondorioz, pazienteak zentro sanitarioa joateko bere ibilgailu propioa edo taxia hartu behar duenean, bere autonomia-erkidegora itzulitakoan gastu horiek ordaintzeko eskatzen zaionean, baiezkoko ebazpena eman ahalko da; betiere eskatzaileak lekualdatu den autonomia-erkidegoko dokumentazioa aurkezten badu eta dokumentazio horretan garraio-bide sanitario kolektiboa ezin izan zaiola eskaini adierazten bada.

8.3. Honako tarifa hauek aplikatuko dira:

8.3.1. Lekualdatzea bere ibilgailu propioan egiten badu zein taxian egiten badu, kilometroko 0,30 euro.

8.3.2. Nolanahi ere, hileko gehieneko zenbatekoak ezingo du 950 euroko kopurua gainditu.

#### **Bederatzigarrena. - Emaille biziduna duten organo-emateen kasu berezia.**

Gure erkidegoan organoak emateko ekimena bultzatzea egokia dela gogoan hartuz, egoera horietan aldi berean gertatzen diren salbuespenezko baldintzak aintzat hartuz, hain zuzen, ere laguntza mota horiek eman edo ez eman jakiteko, emaille bizidunaren organo-transplanteetan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

9.1. Emaille pazientetzat hartzea, aldez aurretik egiten diren azterketen fasean zein transplantea bera egiten den fasean.

9.2. Emaille hartzailearena ez den beste autonomia-erkidego batekoa denean, emaillearen jatorrizko lurralde horrek ordaindu beharko ditu haren mantenu-, ostatu- eta lekualdatze-gastuak.

9.3. Euskal Autonomia Erkidegoa ez den autonomia-erkidego batetik datorren emaillearen kasuan, jatorrizko erkidego horrek ez baditu pazientearen mantenu-, ostatu- eta lekualdatze-gastuak ordaintzen, hartzailea den lurralde historikoak aipatutako gastuak bere gain hartuko ditu.

#### **Hamargarrena.- Iraunaldia eta indargabetzea.**

10.1. Dokumentu honen xede diren jarraibideak ezarri ahal izango zaizkio jarraibide orokor hau indarrean sartu zenetik egiten den eskaera orori, betiere urriaren 29ko 319/2024 Dekretuarekin bat etorriz (Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), eta Osasun sailburuordearen 2002ko uztailaren 16ko Ebazpenari jarraiki (Euskadiko Sistema Sanitariotik kanpoko asistentzia sanitariora sarbidea edukitzeko irizpideak eta jarduketa-protokoloak gauzatzeko araubidea ezartzen duena).

10.2. Indargabetuak eta deuseztatuak geratzen dira maila berdin edo baxuagoko xedapen eta jarduketa guztiak, baldin honako gidalerro orokor honetan aurreikusten diren jarraibideei trabak jartzen badizkiote.

10.3. Jarraibide orokor hau 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean

JAIME RUIZ DE  
EGUINO  
LANGARICA -  
16283595D

Firmado digitalmente por  
JAIME RUIZ DE EGUINO  
LANGARICA - 16283595D  
Fecha: 2026.01.02  
11:37:15 +01'00'

Jaime Ruiz de Eguino Langarica

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaria